

## NOLA ERABILI

# Menderakuntza bidezko perpausak -IV- kausazkoak

Esku artean daukazun bideoan bi atal nagusi bereiz daitezke: kausazko perpausak eta konparaziozko perpausak.

**-Kausazkoak 03:40**

### **PROPOSAMENA**

Bideo-gelara jo aurretik, kausazko perpausen atalari dagozkion orrialdeak ikasleei banatu, bertan agertzen diren kontzeptuak eta adibideak klasean landu eta ikasleen zalantzak argitu.

**-ATAL DRAMATIKO TXIKIAK:** *-lako -nez gero -la eta*

**-Gidoiak irakurri** letra lodiz azpimarratutakoei arreta berezia jarritz.

**-Gidoien argudioaren laburpena egin.** Hau da, gidoien argudioak modu laburrean idatziz eman, eurretan gertatutakoaren zergatiak argi agertuz.

**-ATAL DRAMATIKO LUZEA: ONEGIAK IZATEAGATIK**

**-Hiru ikasleko taldetxoak egin.**

**-Gidoia taldekideen artean irakurri,** letra lodiz azpimarratutakoei arreta berezia jarritz.

**-Gidoia irakurriz antzeztu.** Hau da, hirukoteko bakoitzak pertsonaia bat aukeratu eta irakurriz, atal dramatikoaren gelakideen aurrean antzeztu.

# EUSKAL PERPAUSEN DANTZA

## 7. kapitulua

### Menderakuntza bidezko perpausak -IV-

#### *kausazkoak*

*-lako, eta, bait-, -nez gero, -nez,  
-la eta, -la bide, -la kausa, -la medio*

Kausazko perpausak kausa edo zergatia adierazten dute.

**OLATZ.-** Zergatik bota duzu arraina zaborretara?  
**MIKEL.-** Usain txarra zeukalako.

## *-lako*

Egitura horrek *zergatik* galderari erantzuten dio eta kausazko egituren artean bera da kausaltasuna argien adierazten duena.

- OLATZ.- Zer gertatzen zaio Mikeli? Kasurik ere ez dit egin.  
LOREA.- Muturtuta egongo da.  
OLATZ.- Muturtuta? Zergatik?  
LOREA.- Txostena ahaztu zaiolako eta oraintxe bertan ekartzeko esan diodalako.  
OLATZ.- Txostena ahaztu? Baina, ordu erdi barru egin behar dugu aurkezpena.  
LOREA.- Horregatik bidali dut etxera txostenaren bila.  
OLATZ.- Eta horregatik haserretu da? Pozik egon beharko luke gogoratu diozulako.  
LOREA.- Bai, baina, badakizu nolakoa den. Halere, urduri samar dabilela uste dut.  
OLATZ.- Orain ulertzen dut; urduri dabilelako muturtzen da hain azkar.  
LOREA.- Eta zu? Zergatik etorri zara hain berandu?  
OLATZ.- Argazkiak jasotzera joan naizelako.  
LOREA.- Egia! Argazkiak! Ea ikus ditzagun.  
OLATZ.- Primeran atera dira.  
LOREA.- Bai, lan bikaina egin duzu. Eta Mikelena?  
OLATZ.- Ez nuen errebelatzera eraman.  
LOREA.- Zergatik?  
OLATZ.- Hargatik.  
LOREA.- Ulertzen dut. Gozoa jarriko da gure Mikeltxo.

Orain ulertzen dut; urduri dabilelako muturtzen da hain azkar.

*Zergatik?* galderari zuzen-zuzen erantzuten dionez, sarritan perpausaren galdegaia izaten da eta, beraz, aditzaren aurre-aurrean jarri behar da.

Txostena ahaztu zaiolako eta  
oraintxe bertan ekartzeko esan diodalako.

Bistan denez, *-lako* mendeko perpausaren amaieran jartzen da.  
Ezezkoetan ere bai.

Txostena ahaztu ez zaiolako eta  
oraintxe bertan ekartzeko esan ez diodalako.

-Zergatik?  
-Hargatik.

Zergatia azaldu gabe, bai edo ez partikulez erantzuteko,  
*hargatik* esapidea erabiliko dugu eta ez *zergatik bai* edo *zergatik ez*  
bezalako esapide okerrak.

## *eta*

Mendebaldeko euskaran erruz erabiltzen da *eta* kausa adierazteko.  
Hori bai, *-lakok* baino kausaltasun ahulagoa adierazten du.

LOREA.- Mikel non da? Ba al dakizu, Olatz?  
OLATZ.- Etxean geratu da, buruko mina zeukan *eta*.

OLATZ.- Nik ezin dut erosi, ez daukat dirurik *eta*.  
MIKEL.- Nik ere ez, Anderren etxera joan behar dut *eta*.

MIKEL.- Atzo errealak galdu egin zuen, ezta?  
LOREA.- Bai, ez Albertok, ez Gabilondok ez zuten jokatu *eta*.

Batzuetan, *etak* adierazitako kausa edo zergatia oso ahula izaten da.  
Kausazkoa baino gehiago, azalpenezkoa izaten da. Sarritan, kontsekutibo-kutsua  
izaten du.

Goazen etxera, berandu da *eta*.

Ireki leihoak, usain txarra dago *eta*.

Isildu egingo naiz, lanean hasi behar dut *eta*.

Zenbaitetan, *-lako eta eta* nahastu egiten dira. Gogoratu *etak -lakok* baino kausaltasun ahulagoa adierazten duela.

Ireki leihoak, usain txarra dago **eta**.

Eta ez, ireki leihoak, usain txarra dagoelako.

-Zergatik etorri zara hain berandu?

-Argazkiak jasotzera joan naizelako.

Eta ez, argazkiak jasotzera joan naiz eta.

### *bait-*

*eta* erabiltzen ez den euskalkietan, ekialdean batez ere, haren ordez, *bait-* erabili ohi da kasu gehienetan.

LOREA.- Mikel non da? Ba al dakizu, Olatz?

OLATZ.- Etxean geratu da, buruko mina baitzeukan.

OLATZ.- Nik ezin dut erosi, ez baitaukat dirurik.

MIKEL.- Nik ere ez, Anderren etxera joan behar baitut.

MIKEL.- Atzo Errealak galdu egin zuen, ezta?

LOREA.- Bai, ez Albertok ez, Gabilondok, ez baitzuten jokatu.

## *-nez gero / -nez*

Egitura horiek ere *-lakok* baino kausaltasun apalagoa adierazten duten perpausak eratzeko erabiltzen dira.

- |         |   |
|---------|---|
| LOREA.- | Kaixo, Mikel!   |
| MIKEL.- | Epa!  |
| LOREA.- | Eta zure erraketa? Ez al duzu ekarri?   |
| MIKEL.- | Ez, apurtu egin zait, eta apurtu zaidanez <b>gero</b> , bota egin dut.                              |
| LOREA.- | Lastima. Zer egingo diogu, ba.  |
| MIKEL.- | Joan zaitez zeu Olatzekin.  |
| LOREA.- | Zereginik ez duzenez <b>gero</b> , erosketak egin ditzakezu.  |
| MIKEL.- | Ez dakit, ba. Ez daukat gogo handirik. Gainera, dirurik ez daukadanez, ezingo dut erosketarik egin. |
| LOREA.- | Dirurik izanez <b>gero</b> , joango al zinateke?  |
| MIKEL.- | Dirurik izanez <b>gero</b> , bai.   |
| LOREA.- | Nik emango dizut. Baita zerrenda bat ere.   |
| LOREA.- | Beno, Mikel. Gero arte.   |

Ez, apurtu egin zait, eta apurtu zaidanez **gero**, bota egin dut.  
Zereginik ez duzenez **gero**, erosketak egin ditzakezu.

*-nez gero* eta *-nez*, aditz laguntzaileari edo trinkoari eransten zaizkio eta *-lako* bezala perpausaren amaieran jartzen dira.  
Gainerako osagaiek aurrera egiten dute.

¶

Dirurik izanez **gero**, joango al zinateke?

Gainera, dirudik ez daukadanez, ezingo dut erosketarik egin.

Erne adiskideak! Azken bi esaldi hauek ez dira kausazkoak.

Lehenengoa, *dirurik izanez gero, joango al zinateke?*  
baldintzazkoa da.

Eta bigarrena, *dirurik ez daukadanez, ezingo dut erosketarik egin,*  
moduzkoa.

Argi ibili ez nahasteko. Kausazkoek *zergatik?* galderari erantzuten diote.

## *-la eta -la bide -la medio -la kausa*

Egitura horiek *-la* konpletiboari *eta* juntagailua edota *bide*, *kausa* eta *medio* hitzak gehituz osatzen dira. Nolanahi ere *-la eta* forma da gehien erabiltzen dena. Besteak oso erabilera urrikoak dira.

- |         |  |
|---------|--|
| OLATZ.- | Kaixo, Mikel! <b>Zer dela eta</b> zarata hori kalean? Zer gertatu da?  |
| MIKEL.- | Ez al dakizu?  |
| OLATZ.- | Ez. Zuk bai, ala?  |
| MIKEL.- | Bai. Hauteskundeak <b>direla eta</b> , kale guztiak hankaz gora jartzen ari dira, badakizu.  |
| OLATZ.- | Bai. Beno, jakin, jakin ez, baina sumatu, sumatzen dut.  |
| MIKEL.- | Eta? Zer dela eta zaude hemen? Ez al zenuen kongresura joan behar?   |
| OLATZ.- | Kongresura? Kongresura? Itoginak <b>direla medio</b> , areto guztiak urez gainezka daude, eta bilera guztiak bertan behera utzi behar izan dituzte.  |
| MIKEL.- | Itoginengatik? Hau marka da gero! Gogoratzen al duzu? Iaz elurra <b>zela kausa</b> , errepide guztiak itxi eta bertan behera utzi zuten kongresua. Aurten itoginak <b>direla eta</b> , ez dakit, ez dakit. |

## *-t(z)eagatik -t(z)earren*

*-t(z)eagatik* eta *-t(z)earren* baliokideak dira, eta aditz-izenari *-agatik* eta *-arren* erantsiz eraten ditugu. Esanahiaren aldetik kausaltasun maila gorena adierazten dute *-lakoren* parekoa eta zuzen-zuzenean *zergatik?* galderari erantzuten diote.

# ONEGIAK IZATEAGATIK

- MIKEL.- Nik ez dakit zer duen mutil horrek buruan. Argi dago arreta ez jartzeagatik galdu duela.
- OLATZ.- Ados nago. Mesede bat egitearren utzi genion, eta begira, odolkiak ordainetan!
- MIKEL.- Nora jo orain argazki-kameraren bila?
- OLATZ.- Ez buelta gehiago eman. Alferrik da.
- LOREA.- Saiatzearren ez dugu ezer galduko.
- MIKEL.- Saiatu, saiatuko nintzateke, baina nondik hasi?
- LOREA.- Joan al zarete galdu zuen tokira?
- MIKEL.- Egia esan, ez.
- LOREA.- Handik hasi behar da, Mikel.
- MIKEL.- Haraino ez joatearren, dirua emango nuke.
- OLATZ.- Barkatu esateagatik, Mikel, baina alfer galanta egina zaude. Ni prest nago arakatzen hasteko.
- MIKEL.- Onegiak izateagatik gertatu zaigu.
- OLATZ.- Bai, eta argazki-kamera galtzeagatik, hainbat lan galduko dugu.
- MIKEL.- Beste bat erosi behar dugu, lehenbailehen.
- LOREA.- Beno, beno nahikoa da. Bilatuko dugu argazki-kamera, bai ala ez?
- MIKEL.- Bai, bai. Negar egiteagatik ez digute ordainduko eta.

Onegiak izateagatik gertatu zaigu.

Egitura hauek sarritan galdegai izaten dira. Halakoetan, perpaus nagusiko aditzaren aurre-aurrean jarri behar dira.

Egitura hauek helburuzko perpausak egiteko ere erabiltzen dira

Zu ikusteagatik etorri naiz.

Edozer egingo zenuke txibia bat lortzeagatik.

Lagunekin egotearren hurbildu naiz.